ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2019ko otsailaren 22a, ostirala • 23 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# AGURAINGO UDALA

**Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko errolda**

Iragarki hau argitaratzen denetik aurrera hamabost egunez egongo da jendaurrean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko errolda, interesdunek aztertu eta, egoki iritziz gero, erreklamazioak aurkez ditzaten.

Hamabost egun baliodun horietan trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko errolda dela-eta alegaziorik aurkezten ez bada, kobratzeko moduan jarriko da.

2019ko martxoaren 1etik apirilaren 30era bitarteko egun baliodunetan, bi horiek barne, ordaindu ahal izango da, borondatezko epean, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 2019koa.

Zerga horren eraginpekoek udalaren diruzaintzan ordaindu ahal izango dute, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorarazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu dezaketela.

Adierazitako epea igarotakoan administrazio premiamendu bidez kobratzeko prozedurari hasiera emango zaio, indarrean dagoen Zergabilketarako Arautegi Orokorrean ezarritako xedapenei jarraituz, eta ordaindu ez diren kuotei ehuneko bosteko errekarguarekin kobratuko dira. Errekargu hau luzapenaren errekarguarekin bateragarria da.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2019ko otsailaren 13a

*Alkatea*
*IÑAKI BERAZA ZUFIAUR*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.02.22 06:39:15 Z